

# ITSASUKO KABALKADA



## IRAULI STORY



## AGORRILAREN 19A PLAZAN 4.30



## AURKEZPENA

Ongi etorri Itsasuko plazara!

### Kabalkadak Itsasun

Kabalkadak lehenago tobera-mustren orroitzapenak dira. Lehenago, senar-emazten arteko gataskak, alargunen arraezkontzak eta gisa hortako gaiak ziren salatzen plaza betean tobera mustren bidez. Gaiak aldatu dira, bainan forma (desfile bat “munstra”, auzi bat eta dantzak) hein batean beiratu da, bereziki Baxe-Nafarroan, Garazi eta Baigorriin. Lapurdi barnealdean, usaia atxiki zuten Luhuson 1950 urteak artino, eta oroz gainetik Makean 1980 artino nunbeitan. 1990-2010 urteetan, kabalkadak berriz abiatu dira Itsasun, Lekornen, Luhuson, Heletan, Bidarrin, Irisarrin, batzutan mende baten geldialditik landa. Itsasun, tobera mustra edo kabalkadak izan dira ondoko urte hauetan : 1849, 1853, 1859, 1865, 1876eko urrian, 1883eko urriaren 22an, 1889an (azkenean debekatua), 1892 inguruan, 1899, 1937 inguruan (Geraston), 1992an, 1994an, 1997an, 2001an, 2007an eta aurten.

*Les cavalcades reprennent l'ancien usage des parades charivariques (tobera mustrak), autrefois destinées à sanctionner collectivement les écarts de conduite en particulier en matière de mœurs. Les sujets ont évolué, mais la forme (défilé, procès et danses) est restée à peu près intacte, surtout en Basse-Navarre méridionale (Garazi, Baigorri). En Labourd intérieur, les derniers villages à avoir maintenu la tradition des cavalcades sont Louhossoa jusqu'aux années 1950 et surtout Macaye jusqu'au début des années 1980. Dans les années 1990-2010, des représentations ont été données à Itxassou, Mendionde, Louhossoa, Hélette, Bidarray, Irissarry, parfois après de longues interruptions. Les parades charivariques attestées à Itxassou sont les suivantes : 1849, 1853, 1859, 1865, octobre 1876, 22 octobre 1883, 1889 (finalement interdite), vers 1892, 1899, vers 1937 (Gerasto), 1992, 1994, 1997, 2001, 2007, 2012.*

### **Beztituak / personnages:**

Banderaria / *porte-drapeau*

Kapitaina eta bere emaztea (zaldiz)/ *le capitaine et son épouse (à cheval)*

Lieutenant-ea eta bere emaztea (zaldiz)/ *le lieutenant et son épouse (à cheval)*

Oilarrak / *coqs*

Zapurrak / *sapeurs*

Banderariak / *porte-drapeaux*

Makilaria / *tambour-major*

Soinulariak / *musiciens.*

Bolantak / *volants*

Bas-andereak / *dames sauvages*

Andere xuriak / *dames blanches*

Kaxkarotak / *danseurs*

Dantzarisak / *danseuses*

Hasi berriak / *danseurs novices*

Lehengo gaztiak / *jeunes d'autrefois*

Auzitegia / *tribunal*

Zirtzilak / *gueux*

### **Soinuaz / musiques:**

XIX. mendearen azken laurdena arte, toberen musika xirula, ttunttuna, arrabita eta atabalaren esku zen. Orduan sartu ziren klarineta, eta gero kobreak eta akordeonak, soinuari indar eta kemen gehiago emanaz.

*Les parades charivariques de la vallée de la Nive étaient accompagnées de la xirula, du tambourin à cordes, du violon et de la caisse jusqu'au dernier quart du XIX<sup>e</sup> siècle. La clarinette, les cuivres et l'accordéon ont enrichi l'orchestration.*

Antzerkiko pertsonaiak orotarikoak dira, beztituen artean dantzatzen eta musika jotzen ez dutenen taldea hain zuzen. Herriko langileriaren eta basapiztien arteko karikatura identifikatzen dute printzipalean. Auzitegiko pertsonaiak, zirtzilak, eta beste barne, huna hemen Antzerkilari nagusiak, ixtorioa borobilduko dutenak:

*Les personnages de la pièce de théâtre tobera font partie des gens costumés. Ils représentent une caricature entre les bêtes sauvages et les divers métiers du village. Voici les personnages principaux qui valsent cette pièce de théâtre:*

Produktorea/*producteur*

Epailea / *juge*

Pinet: prokuradorea/ *procureur*

Cavaignac: huxerra / *huissier*

Itsasuarrak: akusatua / *accusé(e)s*

### **Antzerkilariak / personnages des toberak**

# IKUSGARRIA

## **Sartzea / entrée**

Trinketetik plazara, desfilea – martxa

## **Plaza hartzea :**

Bolant dantza,edo kaxkarot martxan plaza hartzea gauzatzen da.

*Défilé, kaxkarot dantza ou Bolant dantza pour prendre la place.*

## **Mutxikoak**

Dantza jauzietan ezagunena, 5 minuta inguruko desafio dantza, lehengo belauadiak urratsak markatu gabe, gogoz emaiten jakin dutena.

*Le saut basque le plus connu.*

## **Bertsularien agurra**

Bertsulariek beren garrantzia badute toberetan. Toberen mezuari bigarren aurpegi bat emaiteko tresna inportanteak dira. Bide batez, Luhusoko Panpale arizana da frangotan toberetan, Mattin eta Xalbador ere.

*Les bertsulari (improvisateurs) ont une grande importance dans les toberak, (comme Panpale de Louhossoa, Mattin ou Xalbador) car ils donnent une deuxième vision du sujet engagé par les Toberak.*

## **Makilariak**

Makilaria Pesta Berriri lotua da Itsasun, Zapur, oilar, banderari eta bertze beztimenduak bezala.

*La tradition du makilari ou tambour-major s'est conservée à Itxassou pour la Fête-Dieu.*

## **TOBERAK-Lehen gertaldia:**

### **Iraultza frantsesa egiten da!**

**Laburki: Telerrealitate historiko kontzeptu berria, berriz iraultza frantsesa filmatuko da 1789-an aski deseuskaldundu ez den Itsasun. Pinet ta Cavaignac berriz etorrarazten dira eta historia berriz hasten.**

Iraultza frantsesa egin eta, arras Itsasuko bizimoldearen eraldatzea hazten dute iraultzalariek, alde ta alor guzietan (herri izenak, ohiturak, hizkuntza, legeak...etab), ados ez direnen kondena errexa eramanez, sasi-auzitegi edo "pseudo auzitegi" baten bidez. Herri guzia bilakatzen da auziaren leku, ta doinua emana da, izuaren hastapena da.

**Gertakariak** :ideal iraultzaile baten izenean (denak berdin), tokiko pribilegio guziak aldatuak izan ziren. EH-rentzat efektu perbertsoa: hemen nobleek zuten ez parte hartzen Lapurdiko Biltzarrean, eta legeak (lur amankomunen, oihanen erabiltze arauak, eskolak, eskaleen laguntza, besteak beste) etxeko jabeek zituzten erabakitzen. Hau dena galtzen da, Pariseren zentralizatzea hasten da: dena maila nazionalean egina da + tokiko hizkuntzen (eta berezitasun guzien) desagertze prozesuaren hastea, hauen desbaloratze, debekatze...etab. Zinez aintzineko bizimoduen eraldatze osoa, alor guzietan!

## **TOBERAK – acte 1**

### **La révolution française éclate!**

**En bref:** Nouveau concept de télé-réalité historique, la Révolution Française sera de nouveau filmée à Itsasu, village basque qui ne s'est pas assez« désidentitarisé» en 1789. Pinet et Cavaignac sont envoyés et l'histoire se répète. Une fois la révolution française effectuée, les révolutionnaires entament le changement radical des modes de vie à Itsasu, à tous les niveaux et dans chaque domaine (nom du village, coutumes, langue, lois...etc), en jugeant et condamnant rapidement tous les sceptiques et les réfractaires, par le biais de pseudos-tribunaux et à grand renfort de guillotine. Tout le village devient le théâtre de procès, le ton est donné, c'est le début de la Terreur.

*Événements historiques: au nom d'un idéal révolutionnaire (tous égaux), tous les privilèges locaux sont abolis. Effet pervers pour le Pays Basque: ici ce sont les nobles qui ne participent pas au Biltzar du Labourd (institution qui gérait entre autres l'utilisation des terres communes, des forêts, le fonctionnement des écoles, l'aide aux sans abri, etc. ), les lois sont promues par cette assemblée des maîtres de maisons. Tout ceci se perd, c' est le début de la centralisation autour de Paris: tout se décide au niveau national + le processus de disparition des langues régionales (comme de toute particularité locale) est amorcé (dévalorisation, interdiction...etc). C'est un changement total du système de vie, à tous les niveaux.*

### **Ihauterietako makil dantzak**

#### **Ahurti-ko makil dantza**

etxez-etxe ibiltzeko makil dantza.

#### **Ezpeleta-ko makil dantza**

Ezpeletako kaxkarotek emaiten zuten moldean, Xan IPHARRAGUERRE-ri ikasia. Airea Besta Berriko Scottish bat da, Ezpeletako kaxkarotekin jotzera heldu zen Arnegiko Domingo GARBAYO-k frangotan emaiten zuena.

#### **Hiru xito (edo makil-ttiki)**

Makil dantza ezagunena, lekuz aldatzeak barneratzen dituen bertsioan emana, Kabalkadak dituen ahalekin bermoldatu eta edertua.

*Trois danses de bâtons itinérantes du carnaval labourdin*

### **Teilagorri**

Dantza jauzi bizi eta aldakorra, urrats segidak lerrokatuz dantzariak gogoz emaiten dutena. Dantza hunekin antzetzua zaigu iraganeko desafioen tirria, publikoari gogoia sortarazten duena, eta emeki emeki herri guzia biltzerainoko indarra emaiten diona.

*Saut basque rythmé avec une chorégraphie représentant le défi consistant à rassembler le village autour des pas des sauts basques.*

### **Kattalina (edo Atxoarena)**

Dantza jauzi motz bezain bihurria, urrats laburrez osatua, melodia biziak laguntzen duelarik. Molde xaharrean urratsak markatu gabe emana, musikariak plaza erdirat bildu ondoan.

*Petit saut basque court mais malicieux, dansé “à l'ancienne“, sans les annonces de pas.*

**Bertsularien hitza**

### **TOBERAK - Bigarren gertaldia:**

**Eliza, Desterrua**

**Laburki:** Errepublika berriarekin izenpetu duen apeza bat igorria da (ta erlijio berri gisako bat zabaltzen du: errepublikaren baloreen maitatzeko beharra). Herrikoak ihes doatzi gehienak, apez eta erresistenteak sasitan sartzen, meza klandestinoak eginez. Gerla hasten delarik Españaren kontra, herritarrek ez dute nahi errepublikar armadan sartu ta “muga” pasatzen dute, Itsasuko herria “Commune infâme” izendatua da eta desertoreen familiak desterrurat kondenatuak dira horrengatik.

**Gertakariak:** Itsasuko Harambillet erretora eta Berouet bikarioek ez zuten izenpetu nahi izan “Apezgoaren Konstituzio Zibila” (apezgoa eta iraultzalarien arteko akordioa), bata kondenatua izan zen eta Pauerat eramana, bestea gordea izan zen Itsasuko etxe batzuetan, eta meza klandestinoak emaiten zituen. Herritar ainitzek ihes egiten zuten "mugatik"-at ez gerlarik egiteko espainiar armadaren kontra: 47 itsasuar gazte armadarat deituak zirenek ihes egin zuten, eta beste herritar ainitzek ere (beste herri batzuetan bezala funtsean, bereziki Sara eta Azkainen). Horren ondorioz, “communes infâmes” deituak izan ziren herri hauek, eta beren herritarrez hustuak izan. Landesetaratua izan ziren Sara, Azkaine, Itsasu bainan ere Luhuso, Ainhoa, Kanbo, Ezpeletako 250 bat familia. Haien etxeak hustuak izan ziren, ta soldaduentzat atxikiak. Itzuliko direlarik ainitzek beren etxeak suntsituak/erreak, salduak edo okupatuak atxemanen dituzte. Bestalde, herrian biztanleak zatituak dira, elkar salaketa ainitz badira, interes pertsonalen arabera, ta buruak erortzen dira.

## **TOBERAK - Acte II**

### **Église et internement des basques**

*En bref: Un prêtre ayant signé avec les révolutionnaires est envoyé. Ensemble ils divulguent une sorte de nouvelle religion: l'obligation de chérir les valeurs de la République. La plupart des Itsasuar fuient, des prêtres et des villageois entrent dans la clandestinité (des messes clandestines sont célébrées). Lorsque la guerre contre l'Espagne est déclarée, les villageois ne veulent pas rejoindre les rangs de l'armée française et ils vont passer la « frontière » pour se cacher. Le village d'Itsasu est décrété « commune infâme » à cause de cet évènement et les familles des déserteurs sont expulsées, leur exode commence.*

**Événements historiques:** Le prêtre Harambillet et le vicaire Berouet, d'Itsasu, ne veulent pas signer « la constitution civile du clergé » (accord entre le clergé et les révolutionnaires). L'un est condamné et emmené à Pau, le second caché dans des demeures d'Itsasu continue à donner des messes clandestines. De nombreux villageois fuient au delà de la « frontière » pour ne pas avoir à combattre contre l'armée espagnole (47 jeunes Itsasuar appelés par l'armée désertent, et bien d'autres s'enfuient). Le même phénomène se produit dans bien d'autres villages, Sara et Azkaine principalement. Par conséquent, ces communes sont aussi décrétées « communes infâmes » par la République, et vidées de leurs habitants. Environ 250 familles de Sara, Azkaine, Itsasu mais aussi Luhuso, Ainhoa, Kanbo, Ezpeleta sont internées dans les Landes. Leurs maisons sont vidées et réservées aux soldats. Lors de leur retour, beaucoup de familles trouvent leur habitation détruite/brûlée, vendue ou occupée. D'autre part, les villageois sont divisés, nombreuses sont les dénonciations et trahisons, pour assouvir des intérêts personnels. Les têtes tombent.

### **Artzain Ardijsalea dantzari**

Iraultza garaian Ezpeletan emana izan zen dantza, orduko gertakarien salatzeke helburuz sortua; bi pertsonen exekuzioa ondorio izan zuen dantza. Ikusgarriarenko eguneratua izan da, oinarrizko hitzetatik, aire eta urratsak josiak izan zaizkio, branle baten gisara. → *Hitzak eta urratsak berantago argitaratuak...*

*Une danse chantée, en forme de “branle“, donnée lors de la révolution par les jeunes Ezpeletar, et qui aura provoqué l’exécution de deux personnes. Les pas et la musique ont été rajoutés sur les paroles d’origine, dont on sait simplement qu’elles avaient été chantées et dansées sur un air de saut basque.*

### **Bertsularien hitza**

#### **Gabota**

Luhuson eta Makean emaiten ziren Gabota berezi eta desberdin batzu. Horiek oinarriztat harturik, taldeko neskek egokitu eta eguneratu dutena.

*Variantes labourdines de la gavotte, à partir de versions apprises à Louhossoa et à Macaye*

#### **Uztaritzeko Maska dantza**

Uztaritzeko kaxkaroten ihauterietako dantza.

*Marche des masques et kaxkarots, dansée à la manière Uztariztar.*

#### **Eskualdunak eta Sorginak**

Faustin Bentaberry Izpurako dantza maisuak moldatu “entrexatak”.

*Deux “entrechats” arrangés par le maître de danse et ménétrier d’Ispoure Faustin Bentaberry ax début du XXe siècle.*

### **Kanboko kaxkarrot martxa**

Kanbon ihauteri eta egun berezietan eman ohi zen martxa dantzatu-kantatua, Behereko plazako dantzari zaharrer ikasia.

*Marche des kaxkarots, dansée à la manière Kanboar.*

### **Makilariak**



*Chanson composée par Martin Hirigoyen de Haitzia vers l'année 1788*

Oihanian eder arbola  
Ni ez naite bizzi bola  
Bibotzetik ekhartzen dizut  
Nigarrarekin odola  
Oi ez naiteke kontsola  
Hilik ere ez dut achola

Sinhets nezazu egian  
Erraiten dautzudanian  
Nik zutaz bertze maiterik  
Ez dudala munduan  
Zer probetchu da ordean  
Ez dute nahi etchean

Uso churi ederra  
Hatsa diboazut behera  
Ni zure ganat jiten nuzu  
Ene penen kondatzerat  
Ikusiz ene manera  
Har nezazu saihetserat

Zaude deskantsu maitia  
Ez nai ez urrikituia  
Nik zure gatik utzi izan dut  
Aintzineko senbar geia  
Etxian haren alde dia  
Haube da ezinbertzia

Bethi berech egoitia  
Othe da gure zortia  
Ezinukeia nahi oraino  
Hobekiago miatzia  
Urrun danik jakitia  
Zer dutan borondatia

Hurbil edo urrun danik  
Ez daukazu deus jakinik  
Nekez dautzute barkatuko  
Nabiz ez duzun hobenik  
Nik bertziari hitza janik  
Zu maitez lan hoi eginik

Eskualdunen harrigarri Murde Ibarassarri  
Jainkoaren kontra da yarri kontra dio yazarri  
Haren kontra du biburtu harek eman dobaina  
Ardi jatera obartu arthaldeko artzaina.

Utza zu.  
Sinhets nezazu  
Hasi duzun lana  
Ez baduzu goan nabi  
Galtcha-Gorri gana  
Tiratzerera bazkarki  
Jaun hari bustana

Ezponda  
Amigot non da?  
Hor deya Domingo  
Bizkar konkor makhurra  
Betiri Gorringo.  
Eskura zak okberra  
Egin dezan bringo

Ibarassarri non da? Hura ere on da  
Egiteko arronda zuekin batian.  
Karrika gainean

Jauzi Katalin!  
Jauzi Pertolin!  
Jauzi orok bardin

Jauzi Katalin!  
Jauzi Pertolin!  
Galtcha-Gorrirekin!

kontrapasak eta erdizka  
kontrapasak eta erdizka  
jo eta erdizka  
jo eta erdizka

Ezker  
pika  
ebats  
erdizka  
ebats  
erdizka  
ebats

ezker  
pika  
ebats  
erdizka  
ebats  
erdizka  
ebats

Kontrapasak ta erdizka  
kontrapasak ta erdizka  
itzuli (kanporat) ta salto bat

Antrexatak ezker  
Antrexatak eskuin  
antrexatak (hiru)

Antrexatak ezker  
Antrexatak eskuin  
Antrexatak (bi) eta fini

## **TOBERAK - Hirugarren gertaldia:** **Gerla**

**Laburki:**Mugan armada instalatzen da Españaren kontra borrokatzeko, Itsasu herriko ontasun guziak errebizionatuak dira haientzat (elizako ontasunak barne). Ainitzez gehiago dira parean, ta galdua da bataila. Elizako altxorra gordetzeaz akusatua da Iharour errieta, ta torturatua (bainan salbatua azkenean).

**Gertakariak:** Armada frantsesak konbokatu eta soldaduak, instalatzen dira mugaldean, eta gerla hasten da (8000 Vs 22000, fite galtzen dute). Gerla egiteko Lapurdi barnekaldeak garai beltzak bizi ditu, “gerla estatuan” emana delako eremua, eta herritarrei dena hartua zaie soldaduentzat (egoitzak lo egiteko, jauntziak, janaria, lastoa ta belarra, asto ta zaldi, gesala kanoientzat...etab).

Desterratuak kanpo batzuetan atxikiak dira norat igorriak diren jakin aintzin, errepublikarrek ez dakite nola tratatu (zenbat ogi, beren jauntziak noiz garbitzerat uzten ahal ...etab).

Itsasun, elizako altxorak hartu nahi zituen iraultzaileek igorri tropa batek, bainan norbaitek jadanik hartu ta gordeak zituen Okazberroan. Iharour errieta da susmatua altxorraren gorde izanaz, ta zangoak errez torturatua izana zen, bainan ez zuen salatu bere etxeko paretetan gordeak zituela altxorak. Itsasuarrek apez juratua irudikatzen zuen panpin bat urkatu zuten apiriku azpian, eta beren apezan meza klandestinoetarat joaitea segitu zuten batzuk (gehienek?).

Beste mito leienda batek dio ere, Perkainek, bere Aldudeko partidaren balentriak egin aintzin (bere arrastatzerat jinak ziren bi errepublikar polizia flakatu xixterraz igorri pilota batekin), Iharour-en salbatzerat jin zela! Ze gizona!

## **La guerre**

**En bref:** L'armée s'installe le long de la frontière pour combattre contre l'Espagne. Tous les biens d'Itsasu sont réquisitionnés pour l'aider (y compris les biens de l'Eglise). Les hommes de l'armée espagnole sont bien plus nombreux et la bataille est perdue. Le régent Iharour est accusé d'avoir caché le trésor de l'église, et torturé (mais finalement sauvé).

**Événements historiques:** L'armée française convoque ses soldats, et s'installe le long de la frontière. La guerre commence (à 8000 contre 22000, elle est vite perdue). Afin d'alimenter cette guerre, le Labourd subit un régime drastique, car la zone est en « état de guerre », et les habitants doivent tout donner pour les soldats (hébergement, habits, nourriture, paille et foin, ânes et chevaux, salpêtre...etc). Les habitants expulsés sont internés dans les Landes avant de savoir où ils seront envoyés. Les républicains ne savent pas comment les traiter (combien de nourriture leur donner, quand les laisser nettoyer leurs habits...etc).

A Itsasu, une troupe envoyée par les révolutionnaires veut s'emparer du trésor de l'église, mais quelqu'un l'a déjà saisi et caché à Okazberroa. C'est le régent Iharour qui est suspecté de cet acte, et torturé (la légende veut que l'on lui brûla les pieds, mais qu'il ne dit rien). Quelques itsasuars pendent un mannequin représentant le prêtre juré (celui qui a été envoyé après avoir signé la constitution civile du clergé) sous le porche de l'église, et continuent à suivre les messes clandestines.

Un autre mythe raconte que le pilotari Perkain, avant d'avoir réalisé son fameux exploit des Aldudes (car tout le monde sait qu'il blessa là-bas deux policiers révolutionnaires venus l'arrêter d'une seule pelote avant de s'échapper), est venu sauver le régent Iharour à Itsasu! Quel homme!



## **Bertsularien hitza**

### **Scottish**

XIX. mendean Euskal Herrian sartu dantzak.

*Danse de bal entrée en Pays Basque au XIXe siècle*

### **4 Kadrillak** (edo kontradantzak)

XIX. mendean Euskal Herrian sartu dantzak. Iparralde guziko ohidurazko 4 kadrillen egiturari jarraikiz, musika eta partidura zahar batzuetarik asmatutako 3 figura berri aurkeztuak zauzkizue.

*Contredanses, entrées dans le répertoire de bal au XIXe siècle au Pays Basque –trois nouvelles figures à partir des vieilles partitions de Sayerce, musicien d’Ahetze (remerciements à Thierry Truffaut).*

### **Mazurka**

Baigorri aldeko harrobi eta meategietan lan egiten zuten Europa ekialdeko langilek ustez utzi ondarea, Baigorriko ARROLA dantza taldearekin batean plantan ezarria.

*Selon certaines hypothèses, cette danse a été apportée par les mineurs venus des pays de l’Europe de l’EST et travaillant vers la vallée des Aldudes. Apprise et mise en place avec la participation de ARROLA.*

## **IV – TOBERAK - Azken gertaldia:**

### **Eskola errepublikarra**

**Laburki:** Iraultzaren lorpen handienetariko bat; hizkuntza “periferikoen” guttitzea, eskolan debekatuz frantsesatik kanpoko beste hizkuntza guziak. Errepublikako printzipio guzien barna errotzea burumuinetan eskolaren bitartez (antzerki patriotikoak, askatasunaren arbola, patriaren hizkuntza...etab). Ta lehen errepublikaren bukaera, bainan halere, ta gaurregun ere gertatzen direnak ikusiz gure herrian ageri da beti gure baitan iraultzaren printzipioak barna errotu nahi dituzten jendeak badirela, asma nor adibidez?!!

**Gertakariak:** Ideologia iraultzailea bi maneretatik inposatu eta zabalarazi zen, alde batetik izuaren bidez, bestalde pedagogiaren bidez; antzerki frantses patriotikoak emaiten ziren herrietan uztailaren 14-etan, askatasunaren arbolak landatzen ziren errepublika frantsesaren baloreen orroitgarri...etab. Ideologiaren zabaltzaile nagusia; eskola (frantses nazioaren nortasuna erakasteko, frantses hizkuntza inposatzeko besteak ahantziz eta mexprexatuz).

Iraultzalariek esperantzetan zen emazte bat utzi zuten bizirik, haurra egin arte (gero burua moztuko ziotelakoan). Bestalde, erresistentziak ere gertatu ziren (gizon batzuk errepublikaren kontra gauzak tindatu zituzten paretetan, arbola patriotikoak moztu, bertsuak bota errepublikaren kontra...etab).

Iraultzak gorrien eta xurien arteko pataska gogor bat sortu zuen, ta gero gauzak mintzen hasi ziren gorrien "kofradian", elkarren artean pataskak hasiz. Napoleonekin gelditu zen lehen errepublika, ongi errotuak utziz beren printzipioak xoko eta buru guzietan gaurregun arte (berriki ukan baitugu xoko hauetan errepublikaren sinbolo gorenetarik zen pertsonai baten bixita, haren segitzaileen plazer handienarentzat!). Halere, dena ez zen galdu hemengo berezitasuneri doakienaz, gauza batzu beti bizirik irauten(nen?) baitute Itsasun nola Euskal Herri osoan.

## **TOBERAK - Acte IV L'école républicaine**

**En bref:** L'une des plus grandes réussites de la révolution: la quasi-disparition des langues “périphériques“, en interdisant à l'école, par exemple, toute autre langue que le français. Les principes de la république se sèment dans les têtes par le biais de la pédagogie (théâtres patriotiques, arbres de la république, la langue de la patrie...etc). La première république arrive finalement à sa fin, mais, les récents événements nous l'ont encore prouvé, il y a toujours dans notre village des gens qui voudraient que l'héritage et les principes de la révolution s'appliquent et demeurent enracinés! Devinez qui par exemple?!!

**Événements historiques:** L'idéologie révolutionnaire s'est implantée de deux manières. D'une part par le biais de la Terreur, et d'autre part par celui de la pédagogie: des théâtres patriotiques sont donnés le 14 juillet, des arbres de la liberté se plantent afin de louer les valeurs de la république française...etc). L'école est le principal outil de diffusion de l'idéologie (afin d'enseigner les valeurs de l'identité française, d'imposer le français comme langue de la nation, en méprisant et éliminant les autres langues).

A Itsasu, des résistances se manifestent (des messages contre la république se peignent dans certains murs, l'arbre de la liberté se coupe, des bertsus se chantent, se dansent...etc), mais les représailles sont violentes. Les révolutionnaires laissent la vie sauve à une itsasuar enceinte, jusqu'à son accouchement.

La révolution donne suite à de fortes tensions entre les « rouges » et les « blancs », et ensuite les choses se dégradent dans la « confrérie » des rouges, pas toujours d'accord entre eux. La première république se termine avec l'empire de Napoléon, laissant ses principes bien enracinés dans chaque recoin et chaque tête, jusqu'à aujourd'hui (nous en avons très récemment eu la preuve, avec la visite d'un éminent symbole de la grande république française, pour la plus grande joie de ses admirateurs!). Cependant, tout ne s'est pas perdu en ce qui concerne les particularités d'Itsasu comme de tout le Pays Basque, et certaines choses perdurent!

### **Dantza khorda**

Itsasun, Pesta Berriz eta Otabaz emaiten zen dantza, kartier bakotxak bazuelarik bere aldia dantza khordaren buru eta buztanean. Sartzea guhaurek moldatua da, soinua ahatik partitura zaharretarik hartua da (“dantza khorda ou la danse longue”).

*La danse en chaîne se donnait à Itxassou pour la Fête-Dieu et son Octave, avec une alternance des quartiers en tête et en queue de farandole. L'introduction dansée, réinventée, est inspirée des danses en chaîne du Guipuzcoa et de la Navarre voisine, sur une mélodie reprise des manuscrits les plus anciens de la “dantza khorda ou la danse longue”.*

### **Fandango – Arin arin**

Oinarriz Iberiar dantzetaik jiten omen den Jota itxurako dantza ritmiko hunekin bukatzen da dantzarien lana. Bakotxak bere estiloan, lekuko urratsak nahasiz, ikusgarria borobiltzen duen dantza.

*Nous finissons le spectacle de danse avec un fandango Arin-arin qui représente la fin ou le début du bal!*

### **Bertsularien Azken agurra**

### **Makilariak**

### **Bukaerako ateratzea - plazaren libratzea**

Auzitegia, dantzariak eta zirtzilak ateratzen dira bolant dantzarekin. Plaza libre.

*Le tribunal, les danseurs et les zirtzil sortent avec la marche des volants. La place est libre.*

Zintzur bustitze etabar.

# **ESKERRAK**

Ataitze dantza taldeak, Itsasuko Menditarrak komiteak, Kafos antzerki tropak eta parte hartzaile oroek eskertzen dituzte:

- Beñat LASCANO, Toberak papereratzeko eta taularatzeko ardura harturik,
- Xabier ITÇAINA, bere ikerketa eta dantzekiko jakinduria partekatzeagatik,
- Peio OCAFRAIN, bukaerako herritarren kantua idatzirik,
- Musikari (Battit GARAT-en zuzendaritzapean) eta bertsolariak (Odei BARROSO eta Battitt CROUSPEYRE), ikusgarriari melodia, zirto eta ahotsak eskainirik,
- Mirentxu LASCANO, Fandango airea asmatuak,
- Haitzia-ko familia, Haitzia-n atxeman maitasun kantuarentzat,
- Jean-Michel NOBLIA, Mutxikoak markatzeagatik,
- ARROLA dantza taldetik pazientzia handirekin mazurka erakasterat etorri direnak!!!
- Mattin ETCHEVERRIA kabalkadaren afitxaren kontzebitzailea
- Thierry TRUFFAUT, hari esker direlako kontradantzen musikak gure dantzaarazle,
- hiru dendari ofizialak (eta hoiengoa tropa laguntzaile guziaz): Claudine LASSAU, Mertxe IRIQUIN eta Guiguitte SALDUMBIDE, parte hartzaileak buluzirik ez utzirik,
- Jantziak prestatu dituzten dantza taldeak:, Luhuso eta Kanboko dantza taldeak,
- Didier TEILAGORRI soinuarendako,
- Itsasuko Herriko Etxea, Euskal kultur erakundea, MENDITARRAK besta komitea eta ATAITZE dantza taldea proiektua diruztatu daukutenak,
- Sébastien MAGIS bere zaldi saldoa prestatuak,
- Kanaldude herri telebista, gure ikusgarria numerikorat itzultzeagatik,
- Goxoki, Ataitze, Sanoki, gaztetxea, eta errepikapen zoin bilkuren egiteko erabili ditugun leku guzieren jabeak,
- Battitt IRUNGARAY gillotina haundi eta xorrotxa muntaturik,

- Kabalkada aitzineko publizitate eremuan, meza ateratzeetarar errezebitu gaituzten elkarte guziaz (Bidarra, Kanbo, Luhuso eta Amaur),
- Egunaren antolaketan parte hartu eta eskukolpea ekarri duten adixkide guziaz,
- [...]

... ahantzi gabe, ahantzen ditugun guziaz!  
**MILESKER HAUNDI BAT!!!**

## IRAULTZA

Dela berreun urte, ze gertakaria  
Geldituz erregeren indarkeria  
Han irautzalariak egin oroitgarria  
Orduan buru mozte, ikaragarria  
Haien tresneria  
Plazan jarria  
Oi afruskeria  
Hartan galdu zen jendearen irria

Garai hartan ere ze kanbiamenduak  
Moldatu zituzten, herrien izenak  
Aintzin ospatzen ziren besta guziak  
Han agertu ere deitura bereziak  
Ilabete berriak  
Usaia bitxiak  
Hoi justiziak  
Hortan ahultzen zirela euskaldunak

Erregetzaren kontra, irautzalariak  
multxoan ere konda zitaiken apezak  
Denboran indar haundia baitzuen elizak  
Andeatu zituzten balio haundiko gauzak  
berdin katedralak  
ala gazteluak  
Hainbat sinboloak  
Langileen izerdiaz xutik emanak

Munduan gizonaren altxor haundiena  
Da ororren gainetik libertatea  
Eguneroko lana, horren artatzea  
Eta batzuetan ere azkarki zaintzea  
Gazteeri kondatzea  
Gogotik ez galtzea  
Nihoiz ahanzteak  
Garaian gure herriak jasan zuena

Ala dadin aberats, ala pobrea  
Gizona gizonaren duk haurridea  
Nolaz gu goratzeko bertzen apaltzea  
Gure anaiari duk laido egitea  
Elgar aditzea  
Elgar maitatzea  
Eta laguntzea  
Hori duk egiazko Jainko legea !

Airea :Ehun urteko gerla  
Azken kobla : Piarres adame Saratarra  
Beste kobla guziak: Peio Oçafraïn